

## AKTA

### UDAL OSOKO EZOHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ezohiko batzarra bildu da:

**Eguna:** 2023/07/12

**Ordua:** 18:00-ak

**Tokia:** Udaletxeko Areto Nagusian

**Bertaratuak:**

**Alkatea:** Joana Mendiboure

**Zinegotziak:**

#### EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza  
Garazi Urdanpilleta Astibia  
Ibon Mitxelena Fernandez  
Nora Velez del Burgo Zalakain  
Edorta Fernandez Etxepeteleku  
Oihana Irastorza Gonzalez  
Ekain Susperregi Iburguren  
Jon Albisu Mendiburu  
Ibintza Irigorri Iriarte

#### EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona  
Maitane Larruskain Agirre  
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

**Idazkaria:**

Oihane Mallagaray Revilla

**Ezin etorria adierazi dute:**

Olaia Lasa Olaziregi  
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi  
Jexux Olaziregi Bagües  
Rafael Bergaretxe Urdanpilleta

#### AZTERGAIK/LABURPENA:

##### Hartutako akordioak

1. Aurreko 2 bilkuren aktak onartu dira.
2. Osoko bilkuren maiztasuna eta orohar egutegi instituzionala onartu dira.
3. Batzorde informatzaile orokorrak sortu eta osatu dira.
4. Udalbatzaren eskumenekoak diren organo kolegiatuetako udalaren ordezkariak izendatu dira.

5. Alkateari eta zinegotzi batzuei dedikazioa aitortu eta ordainsariak ezarri dira, behin-behineko langilearen dedikazioa eta ordainsaria onartu eta dedikaziorik gabeko kideen ordaintak, udalkideen kalteordainak eta udal talde politikoen diru-izendapenak egin dira.
6. Kontratazio-mahaiaren eraketa (Udal Osoa denean kontratazio organoa) onartu da.

**Berri emateak: ondorengo puntuei buruz egindako izapideena:**

- a) Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapena.
- b) Alkateordeen izendapenak.
- c) Batzorde Informatiboen lehendakaritza eskuordetzeak.
- d) Tokiko Gobernu Batzarrak eskuratutako ahalmenak.
- e) Zinegotzi delegatuen izendapena.
- f) Kontratazio-mahaiaren eraketa (Alkatea denean kontratazio organoa).
- g) Talde politikoen eraketa.
- h) Zuzendaritza Batzordea.

## Esan-eginak eta erabakiak

- I -

### AURREKO BATZARREI DAGOZKIEN AKTEN ONARPENA

2023ko ekainaren 17ko ohiko eta 2023ko ekainaren 22ko ezohiko bilkuren aktak onartu dira.

#### Botazioa:

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu, EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzia</b>		

Gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- II -

### OSOKO BILKUREN MAIZTASUNARI BURUZKO PROPOSAMENA ETA OROHAR EGUTEGI INSTITUZIONALA ONARTZEA.

Antolaketa eredia berria oinarri harturik, aurreikus daitekeen instituzio-jarduera guztia islatzen duen urteko egutegi bat prestatzeko sistematika ezar dadila proposatzen du. Guzti hori hurrengo xedearekin:

- Korporazioa osatzen duten pertsonen bizitza profesional, politiko eta pertsonalaren arteko bateragarritasuna bultzatzea.
- Administrazio-unitate ezberdinek burutu beharreko lanen antolakuntzarako eta planifikaziorako tresnan bilakatzea.
- Udalaren jardueraren gardentasuna eta komunikazioa indartzea.

Azken finean zera proposatzen da:

- Udal-antolakuntza guztiaren saioretako data eta orduak finkatzeko komenigarritasuna:
  - Osoko Bilkurarenak,
  - Tokiko Gobernu Batzordearenak,
  - Informazio Batzordeenak,
  - Koordinazio Batzordeenak,
  - eta Kontratazio-mahaienak.

Azaldutakoa aintzat harturik, Alkateak Udalaren Osoko Bilkurari hurrengoko honako erabaki hau hartzea proposatu dio:

Lehenengoa.- Udal Osoko ohiko bilkurak, lehentasunez, hilabete bakoitzeko azken asteazkenetan, arratsaldeko 18:00tan egitea erabaki da. Abuztuan ez da Udal Osoko Bilkurarik egingo.

Bigarrena.- Tokiko Gobernu Batzordeko maiztasunari dagokionez, hilabete bakoitzeko bigarren eta laugarren asteartetan, goizeko 8:30ean.

Hirugarrena.- Hiru Batzorde Iraunkorren maiztasunari dagokionez:

- Antolaketa eta Kontu Bereziak (1. eta 3. asteazkenetan, goizeko 8:30ean)
- Lurralde (2. eta 4. asteazkenetan, goizeko 08:30tan).
- Herritarrek (2. eta 4. asteazkenetan, goizeko 11:00ean).

Laugarrena.- Koordinazio batzordeak astero astelehenetan egingo dira:

- Antolaketari dagokion koordinazioa: 10:30ean.
- Lurraldeari dagokion koordinazioa: 9:00tan.
- Herritarrei dagokion koordinazioa: 9:00tan.

Bosgarrena.- Kontratazio Mahaia hilabeteko hirugarren ostegunetan 09:30tan bilduko da ohiko bilkuran.

Seigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalaren iragarki-oholean eta udalaren webgunean argitaratuko da.

Ondoren botazioa egin da:

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu, EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzia</b>		

Gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- III -

**BATZORDE INFORMATZAILE OROKORRAK SORTU ETA OSATZEA.**

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.c) artikulua arabera, 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, Osoko Bilkuran eztabaidatu beharreko gaien azterketa, informea edo kontsulta burutzea helburu duten organoak egongo dira. Horrez gain, batzordeok Alkatearen, Tokiko Gobernu Batzordearen eta eskuordetzak dituzten zinegotzien kudeaketaren segimendua ere eramango dute, Osoko Bilkurak dituen kontrol-eskumenei kalterik egin gabe.

Aipatutako arauan oinarrituta, 5.000 biztanle baino gehiago dituen udalerria denez, Udalaren Informazio Batzordeak sortzeari ekin beharko zaio.

Era berean, Toki Erakundearen Antolakuntza, Jarduera eta Araubideari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 38. artikulua errespetatuz, sortze-saioa gauzatu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan, ez-ohiko Osoko Bilkura egin behar da. Horren helburua, besteak beste, Informazio Batzorde Iraunkorren sortze eta osaketan ingurukoak erabakitzea da.

Aipaturiko Erregelamenduaren 124.2. artikulua, bere aldetik, Informazio Batzorde iraunkorrek modu orokorrean Osoko Bilkuran eztabaidatu beharreko gaiak beraien artean banatzen dituztenak direla

ezartzen du. Haien zenbakia eta izendapena, bai eta korporazioaren agintaldian gerta daitekeen edozein aldaketa, Alkatetzaren proposamenez Osoko Bilkuran lortutako Akordioan erabakiko da. Ahal den heinean, azaldutakoa zerbitzu korporatiboak antolatzen diren eremu handien zenbaki eta izendapenari egokituko zaie.

Orobat, Erregelamenduaren 125. artikulua adierazten du batzorde bakoitzeko osaketa korporazioan ordezkariak duten talde politiko desberdinekiko proportzionala izan behar dela.

Udalak uste du Informazio Batzordeetan oinarritutako halako instituzio-antolakuntza sinplifikatuarekin administrazio-unitate ezberdinen arteko koordinazioa eta lan-esparru bakoitzeko ezagutza eta sektoreko zein zeharkako komunikazioa sustatu eta bultzatuko litzatekeela. Horrez gain, burokrazia murriztuko litzateke, bai eta kudeaketaren inguruko jardura politiko zein teknikoaren eraginkortasuna eta efizientzia indartu ere.

Azaldutakoa aintzat harturik, Alkateak Udalaren Osoko Bilkurari honako erabaki hau hartzea proposatu dio:

Lehenengoa.- Hiru Batzorde Iraunkor eratzea hurrengo izendapenekin:

- Antolaketa eta Kontu Bereziak (1. eta 3. asteazkenetan, goizeko 8:30ean)
  - o Joana Mendiboure eta ordezkaria, Garazi Urdanpilleta Astibia
  - o Garazi Urdanpilleta Astibia eta ordezkaria Olaia Lasa Olaziregi
  - o Agustin Lekuona Irastorza eta ordezkaria Olaia Lasa Olaziregi
  - o Olaia Lasa Olaziregi eta ordezkaria Agustin Lekuona Irastorza
  - o Rafael Bergaretxe Urdanpilleta eta ordezkaria Janire Mitxelena Lekuona
- Lurraldea (2. eta 4. asteazkenetan, 08:30etan)
  - o Agustin Lekuona Irastorza eta ordezkaria Olaia Lasa Olaziregi
  - o Joana Mendiboure eta ordezkaria Ibintza Irigorri Iriarte
  - o Garazi Urdanpilleta Astibia eta ordezkaria Ihintza Irigorri Iriarte
  - o Olaia Lasa Olaziregi eta ordezkaria Ion Albisu Mendiburu
  - o Iñaki Arbelaiz Mitxelena eta ordezkaria Janire Mitxelena Lekuona
- Herritarrak (2. eta 4. asteazkenetan, 11:00ean)
  - o Garazi Urdanpilleta Astibia eta ordezkaria Jexux Olaziregi Bagües
  - o Agustin Lekuona Irastorza eta ordezkaria Edorta Fernandez Etxepeteleku
  - o Nora Velez del Burgo Zalakain eta ordezkaria, Joana Mendiboure
  - o Olaia Lasa Olaziregi eta ordezkaria Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
  - o Janire Mitxelena Lekuona eta ordezkaria Rafael Bergaretxe Urdanpilleta

Bigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalaren iragarki-oholean eta udalaren webgunean argitaratuko da.

Ondoren botazioa egin da:

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu, EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- IV -

UDALBATZAREN ESKUMENEKOAK DIREN ORGANO KOLEGIATUETAKO UDALAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Alkateak Udal Osoko Bilkurari partaide anitzeko erakundeetako Udalaren ordezkarien honako izendapen-proposamena egin dio:

ERAKUNDEA	KIDEAK	ORDEZKOAK
OARSOALDEA S.A.	Joana Mendiboure	Agustin Lekuona Irastorza
LANBARREN PARKE LOGISTIKOA S.A.	Agustin Lekuona Irastorza	Joana Mendiboure
AÑARBE MANKOMUNITATEA	Joana Mendiboure	Agustin Lekuona Irastorza
SAN MARKO MANKOMUNITATEA	Joana Mendiboure	Agustin Lekuona Irastorza
	Olaia Lasa Olaziregi	Garazi Urdanpilleta Astibia
UEMA	Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi	Oihana Irastorza Gonzalez
	Jexux Olaziregi Bagües	Edorta Fernandez Etxepeteleku
	Joana Mendiboure	Ibintza Iragorri Iriarte
	Garazi Urdanpilleta Astibia	Olaia Lasa Olaziregi
	Ekain Susperregi Ibarguren	Agustin Lekuona Irastorza
AIAKO HARRIKO PARKE NATURALA	Agustin Lekuona Irastorza	Olaia Lasa Olaziregi
BEHEMENDI	Agustin Lekuona Irastorza	Joana Mendiboure
OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOA (URMENDI)	Joana Mendiboure	Olaia Lasa Olaziregi
	Garazi Urdanpilleta Astibia	Agustin Lekuona Irastorza
EUSKAL FONDOA	Olaia Lasa Olaziregi	Garazi Urdanpilleta Astibia
GPS-GIPUZKOAKO PARKETXE NATURALAREN SAREA FUNDAZIOA	Olaia Lasa Olaziregi	Garazi Urdanpilleta Astibia
OTASA	Joana Mendiboure	Ibon Mitxelena Fernandez
	Garazi Urdanpilleta Astibia	Edorta Fernandez Etxepeteleku
	Agustin Lekuona Irastorza	Olaia Lasa Olaziregi
	Jexux Olaziregi Bagües	Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
	Janire Mitxelena Lekuona	Rafael Bergaretxe Urdanpilleta
UDALBILTZA	Garazi Urdanpilleta Astibia	Joana Mendiboure
HOBEKI	Olaia Lasa Olaziregi	Garazi Urdanpilleta Astibia

GIPUZKOAKO GARRAIO LURRALDE AGINTARITZA	Garazi Urdanpilleta Astibia	Olaia Lasa Olaziregi
ELIZALDE HERRI ESKOLA-LH	Agustin Lekuona Irastorza	Garazi Urdanpilleta Astibia
ELIZALDE HERRI ESKOLA-DBH	Olaia Lasa Olaziregi	Nora Velez del Burgo Zalakain
HAURTZARO IKASTOLA	Garazi Urdanpilleta Astibia	Olaia Lasa Olaziregi

Ondoren botazioa egin da:

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu, EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzia</b>		

Gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- V -

ALKATEARI ETA ZINEGOTZI BATZUEI DEDIKAZIOA AITORTZEKO ETA ORDAINSARIEN PROPOSAMENA, BEHIN-BEHINEKO LANGILEAREN DEDIKAZIOA ETA ORDAINSARIAREN PROPOSAMENA ETA DEDIKAZIORIK GABEKO KIDEEN ORDAINKETAK, UDALKIDEEN KALTEORDAINAK ETA UDAL TALDE POLITIKOEN DIRU-IZENDAPENAK.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikulua xedatzen du toki-korporazioek beren aurrekontuetan jaso behar dituztela arduraldi eskusiboz betetzen dituzten karguek jasoko dituzten ordainsariak, arduraldi eskusiborik edo arduraldi partzialik ez duten korporazioko kideek korporazioko kide anitzeko organoen bilkuretara benetan joateagatik jasoko duten zenbatekoa, eta udalkideek beren kargua betetzean sortutako benetako gastuengatik jasoko dituzten kalte-ordainak, kasu bakoitzean oro har ezartzen diren mugen barruan.

Gaineratzen du Lurralde Historiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko direla oso-osorik, eta Udaletxeko iragarki-oholean finkatu beharko direla arduraldi eskusiboa eta partziala duten karguen ordainsariei eta kargu horien dedikazio-erregimenari, kalte-ordainei eta bertaratzei buruzko osoko bilkurako erabakiak, bai eta korporazioko lehendakariaren erabakiak ere, eginkizunak arduraldi eskusiboan edo partzalean beteko dituzten kideak zehazten dituztenak.

Honenbestez, Udal idazkariak eta kontuhartzaileak egindako txostenak kontuan hartuz, Alkateak Osoko Bilkurari honako erabaki hau hartzea proposatu dio:

Lehenengoa.- Ondoko udal karguei dedikazio araubide hau esleitzea, denak arduraldi eskusiboekin:

- Alkate/lehendakaria.
- Lehen Alkateordea.
- Bigarren Alkateordea.
- Hirugarren Alkateordea.
- Tokiko Gobernu Batzordeko kidea (oposizioko zinegotzia).

Dedikazio osoko karguak zein horiei esleitutako ordainsariak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta udal webgunean argitaratuko dira.

Beren eginkizunak dedikazio osoan betetzen dituzten karguek ezin izango dute inolako dietarik jaso Udalaren edo haren administrazio instituzionalaren organoetara joateagatik.

Bigarrena.- Dedikazio osoa edota alde batekoa duten Udalbatzako kideen ordainsariak, ondoren azaltzen denari jarraiki finkatzea:

KARGUA	HILEKO ORDAINSARIA	URTEKO ORDAINSARIA
Alkatea	3850,80 €	53.911,20 €
Lehenengo Alkateordea	3010,23 €	42.143,22 €
Bigarren Alkateordea	3710,68 €	51949,52 €
Hirugarren Alkateordea	3010,23 €	42.143,22 €
Tokiko Gobernu Batzordeko kidea (oposizioko zinegotzia)	2733,34 €	38.266,76 €

Ordainsari horiek urtero eguneratuko dira, enplegatu publikoen ordainsariak eguneratzen diren moduan. Aipatutako zenbatekoetan ez dira sartzen hiru urtekoen zenbatekoak.

Hirugarrena.- Alkatearen idazkaria, lanaldi osoan eta Udalhitzeko 13. mailari dagokion ordainsariarekin.

Laugarrena.- Bertaratzeagatik dietak finkatuko dira arduraldi eskusiboa ez duten udalkideentzat, kide anitzeko organoen saioetara joateagatik (dagokion PFEZari lotuta egongo dira, Ogasunera informatuak izango dira).

ORGANOA	ZENBATEKOA
Osoko Bilkura (ohikoak zein ez ohikoak)	420 €
Informazio Batzordeak eta Koordinazio Batzordeak	105 €

Udalkideek bertaratzeengatik hileko jaso dezaketen gehieneko zenbatekoa honako hau da: 420 euro hileko.

Dietak urte bakoitzaren hasieran eguneratuko dira, Oiartzungo Udaleko enplegatu publikoen ordainsariak aurreneko urtean izan duten ehuneko berean.

Laugarrena.- Talde politiko bakoitzak hileko 150 €tan finkatzea.

Bosgarrena.- Udalkideek eskubidea izango dute beren kargua gauzatzean sortutako gastuengatik kalte-ordainak jasotzeko, administrazio publikoetan, oro har, aplikatu beharreko arauari jarraikiz (16/1993 Dekretua, otsailaren 2koa, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoa).

Seigarrena.- Arduraldi eskusiboa duten udalkideek, aldi baterako egoera izanez gero, eskubidea izango dute laguntza ekonomiko osagarriak jasotzeko, Oiartzungo Udaleko gainerako enplegatu publikoek bezala.



Udalkideek eskubidea izango dute istripuen aseguru eta bizi-aseguru izateko, Oiartzungo Udalaren zerbitzura lanean ari diren gainerako enplegatu publikoen baldintza berberetan.

Zazpigarrena.- Neurri horiek 2023ko ekainaren 17tik aurrera izango dituzte ondorioak.

Zortzigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalaren iragarki-oholean eta udalaren webgunean argitaratuko da.

Ondoren botazioa egin da:

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu, EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzia</b>		

Gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- VI -

**KONTRATAZIO-MAHAIAREN ERAKETA (UDAL OSOA DENEAN KONTRATAZIO ORGANOA).**

2019ko uztailaren 3an egindako bilkuran, Oiartzungo Udaleko Udaltzarak kontratazio-mahai iraunkorraren egitura onartu zuen, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei Buruzko 9/2017 Legearen arabera (2019ko uztailaren 8ko 129 GAOn argitaratuta). Egitura hori 2022ko irailaren 28ko Udaltzarak aldatu zuen (2022ko urriaren 6ko 190 GAOn argitaratuta).

2023ko ekainaren 17an udal korporazio berria eratu zen eta, ondorioz, kontratazio mahai iraunkorraren egitura berria ere onartu behar da.

Honenbestez, kontratazio-teknikariak egindako txostena kontuan hartuz, Osoko Bilkurari honako erabaki hau hartzea proposatzen zaio:

**Lehen.**- Udaltzaren eskumenekoak diren espedienteetarako, kontratazio-mahai iraunkorraren osaera ezartzea:

Presidentea:

- Titularra: Agustin Lekuona Irastorza, bigarren alkateordea.
- Ordezkoa: Garazi Urdanpilleta Astibia, lehenengo alkateordea.

1. bokala:

- Titularra: Janire Michelena Lecuona, EAJko zinegotzia.
- Ordezkoa: Rafael Bergaretxe Urdanpilleta, EAJko zinegotzia.

2. bokala:

- Titularra: Xabier de la Mota Vazquez, idazkaria.
- Ordezkoa: Oihane Mallagaray Revilla, giza baliabideetako teknikaria.

3. bokala:

- Titularra: Maria Jesus Otaegi Irureta, kontu-hartzailea.

- Ordezkoa: Elixabete Jauregi Imaz, diruzaina.

4. bokala:

- Titularra: Aroia Altuna Ibareguren, kontratazio-teknikaria.
- Ordezkoa: Oihane Mallagaray Revilla, giza baliabideetako teknikaria.

5. bokala:

- Titularra: Amagoia Marcos Saizar, arkitekto teknikoa.
- Ordezkoa: Jose Sanchez Alviz, arkitekto teknikoa.

Idazkaria:

- Titularra: Aroia Altuna Ibareguren, kontratazio-teknikaria.
- Ordezkoa: Xabier de la Mota Vazquez, idazkaria.

**Bigarrena.-** Kontratazio Mahaia hilabeteko hirugarren ostegunetan 09:30ean bilduko da ohiko bilkuran. Hala ere, deialdiaren inguruabarren arabera, beste ordu batean bildu ahal izango da egun berean, lehendakariak dagokion gai-zerrendan erabakitakoaren arabera. Egun hori jaieguna bada, posible den hurrengo egun baliodunera aurreratu edo atzeratuko da deialdia. Abuztuan zehar, Kontratazio Mahaia ez du bilerarik egingo. Hori guztia legegintzaldirako Udaltzatza onartutako egutegian zehaztutakoaren arabera.

Edonola ere, Lehendakariak ezohiko deialdia egiteko eskumena izango du, betiere ezohiko kontratazio proposamenik baldin badago.

**Hirugarrena.-** Kontratazio Mahaiaren osaeraren berri ematea Kontratatzailearen Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**Laugarrena.-** Sektore Publikoko Kontratuen Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.4 artikuluan zehaztutako gutxienezko epearen kalterik gabe, osaera berria 2023ko abuztuaren 1etik aurrera izango da eraginkor.

Ondoren botazioa egin da:

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu, EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzia</b>		

Gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- VII -

**ALKATEAK EGINDAKO HAINBAT DEKRETUEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren 8 puntuei buruz Alkateak egindako Dekretuen berri eman da:

- a) Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapena.

Ekainaren 26ko 969 zb.ko Dekretuaren bitartez, Alkateak honako erabakia hartu ditu:

“Lehena.- Oiartzungo Udaleko Tokiko Gobernu Batzorderako ondoren aipatzen diren zinegotziak kide izendatzea:

— Garazi Urdanpilleta Astibia andrea, udal honetan ordezkapena duen EH Bildu talde politikoko kidea den zinegotzia.

— Agustin Lekuona Irastorza jauna, udal honetan ordezkapena duen EH Bildu talde politikoko kidea den zinegotzia.

— Olaia Lasa Olaziregi andrea, udal honetan ordezkapena duen EH Bildu talde politikoko kidea den zinegotzia.

— Janire Mitxelena Lekuona andrea, udal honetan ordezkapena duen EAJ-PNV talde politikoko kidea den zinegotzia.

Bigarrena.- Ebazpen honen berri ematea Tokiko Gobernu Batzarkide izendatu direnei.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri emango zaie, jakin dezaten eta ondorioak sortzeko, udaleko sail eta azpisail desberdinei.

Laugarrena.- Ebazpen hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean. Eta 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea ebazpen honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean.

Bosgarrena.- Egingo den hurrengoko Osoko Bilkurari ebazpen honen berri ematea.”

b) Alkateordeen izendapenak.

Ekainaren 26ko 976 zb.ko Dekretuaren bitartez, Alkateak honako erabakia hartu ditu:

“Lehen.- Oiartzungo Udaleko alkateorde izendatzea, Tokiko Gobernu Batzarreko partaideetatik, ondorengo zinegotzi hauek, ordena honetan:

— Lehenengo Alkateordea: Garazi Urdanpilleta Astibia andrea, EH. Bildu udal talde politiko kidea den zinegotzia.

— Bigarren Alkateordea: Agustin Lekuona Irastorza jauna, EH Bildu udal talde politiko kidea den zinegotzia.

— Hirugarren Alkateordea: Olaia Lasa Olaziregi andrea, EH Bildu udal talde politiko den zinegotzia.

Bigarrena.- Alkatea absente, kanpoan edo gaixorik egongo balitz, indarrean dagoen legeriak aitortzen dizkion ahalmen eta eskumenak, bereziki bankuetako ordain-beharrak baimentzekoei buruzko agindu-emateak, alkateordeek egingo dituzte, beti ere ezarritako ordenaren arabera.

Hirugarrena.- Alkateak herritik irten beharko balu, dekretu bidez adieraziko du absentziaren iraupena eta bere eskumenak bere gain hartuko dituen Alkateordea izendatuko du.

Eskuordetza hori berariaz ematen ez bada, alkate hau lehen alkateordeak ordezkatzeko du, eta, halakorik ezean, bertan dauden beste alkateordeetako edozeinek, ebazpen honetan aurreikusitako hurrenkeran. Alkateordeek horren berri eman beharko diete udalbatzako gainerako kideei, eta egun berean ezingo dute jarduneko alkate gisa haietako batek baino gehiagok.

Laugarrena.- Dekretu honen berri emango zaie alkateordeei. Gainera, bertan adieraziko zaie jarduneko Alkate gisa buruturiko ekintzen berri Alkateari jakinarazi beharko dietela eta ezin izango dutela Alkate honek lehendik eginiko eskuordetzak aldatu edo eskuordetza berririk egin.

Bosgarrena.- Erabaki honen berri emango zaie, jakin dezaten eta ondorioak sortzeko, udaleko sail eta azpisail desberdinei.

Seigarrena.- Ebazpen hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean. Eta 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea ebazpen honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean.

Zazpigarrena.- Egingo den hurrengoko Osoko Bilkurari ebazpen honen berri ematea.”

c) Batzorde Informatiboen lehendakaritza eskuordetzeak.

Uztailaren 10eko 1064 zb.ko Dekretuaren bitartez, Alkateak honako erabakia hartu ditu:

“Lehena.- Agustín Lekuona Irastorza jaunari, Tokiko gobernu-batzarreko kideari eta bigarren Alkateordeari, eskuordetzan ematea Lurralde atalak hartzen dituen sailei dagozkion ondoren aipatzen diren eskuduntzak:

1. Kontratu txikiak eta gastu horien onarpena
2. Obra txikiei dagozkien lizentziak eta aurretiazko komunikazio araubideko jardueren espedienteetan jakinarazpenak
3. Izaera arrunta duten hirigintzako galderen kontsulten erantzuna

Eskuordetze honek 2023ko uztailaren 12tik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.- Olaia Lasa Olaziregi andreari, Tokiko gobernu-batzarreko kideari eta hirugarren Alkateordeari, eskuordetzan ematea Gizarte Zerbitzuetako sailari dagozkion ondoren aipatzen diren eskuduntzak:

1. Familia eskuhartze programa
2. Kontratu txikiak eta gastu horien onarpena
3. Prestazio ekonomikoak eta dependentzia: Gizarte larrialdiko Laguntzak ematea edo eskuordetzeak barne biltzen dituen beste mota batekoak
4. Etxez etxeko zerbitzua
5. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat ibilgailuak aparkatzeko txartelak ematea

Eskuordetze honek 2023ko abuztuaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.- Eskuordetze honen barruan dauden gaiei buruz Gobernu Batzordeko kide hauek har ditzaketen ebazpen administratiboetan espreski jasoko da zirkunstantzia hau eta eskuordetu ez diren gaietan organo eskuordetzaileak emango dituen ebazpenen balio berdina izango dute.

Zinegotzi-ahaldunaren ebazpenaren aurka birjarpen helegitea tarteratu ahal izango da, baina, horien gainean, erabakia alkateak hartuko du.

Laugarrena.- Delegazio honen denbora-eremua zinegotzi-ordezkarari izaera duen denborara mugatzen da, eta, edonola ere, legealdi honetara, nahiz eta edozein unetan eta baldintza formalak bete ondoren alkateak indargabetzeko eskumena izango duen.

Eskuordetza dutenak absente, kanpoan edo beste eragozpenen bat izanez gero, alkateak bereganatuko ditu zuzen-zuzenean eskuordeturiko eskumenak, horretarako ez delarik beharrezkoa izango ebazpen berri bat ematea.

Bosgarrena.- Erabaki honen berri ematea eskuordeturiko zinegotzietan eta jasota eta 24 ordu barruan inork ez balu ezer adieraziko, edo eskuordetza baliatzen bada, onartu duela esan nahiko du.

Seigarrena.- Ebazpen honen berri ematea Udal Osoko Bilkurari egiten duen lehenengo bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzea.”

d) Tokiko Gobernu Batzarrak eskuratutako ahalmenak.

Uztailaren 15eko 1040 zb.ko Dekretuaren bitartez, Alkateak honako erabakia hartu ditu:

“Lehena.- Alkatezari dagozkion eta ondoren aipatzen diren ahalmenak Tokiko Gobernu Batzarrarengan uztea:

\* Hirigintza-Saila.

— Plan Orokorreko Ordenantzetako 104. artikuluan aurreikusten diren baimenak, obra txikiei dagozkienak izan ezik.

— Jarduera klasifikatuen jarduera baimenak ematea. Baita, Euskadiko Ingurumen Administrazioa arautzen duen abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I.C eranskinean barne sarturik daudenak ere.

— Baimenen iraungipen-espeditzea erabakitzea.

— Izaera bereziko hirigintzako galderen kontsulten erantzuna.

— Diziplina espeditenteak eta espediente zigortzaileak erabakitzea.

— Udaltzari bereziki ez dagozkion planeamendu orokorraren garapenerako planeamendu-dokumentuen onarpena, eta, era berean, gestio urbanistikoa eta urbanizazio-proiektuen inguruko dokumentuen onarpena.

— Obra-proiektuen onarpena, beti ere kopuruaren arabera adjudikazioa berari ba dagokio, Aurrekontua exekutatzeko Udal Arauak ezarritakoarekin adostasunean.

\* Ekonomia-Saila.

— Indarrean den aurrekontua exekutatzeko Udal Arauak ezarritakoaren arabera bere eskumenen mugetan gastuak onartzea.

— 50.000,01 eurotik 100.000 euro arteko diru-laguntzak onartzea.

\* Pertsonal-Saila.

— Udal Osoko Bilkurak onarturiko aurrekontua eta plantillaren arabera Lan Eskaintza Publikoa onartzea, pertsonala aukeratzeko eta lanpostuak betetzeko frogan oinarriak onartzea, eta finkoak eta aldizkakoak ez diren lansari osagarriak ematea.

— Diziplina espeditenteak auzi-bideratzea eta edozein pertsonal mota, aurretik, ohartaraztea eta aldi baterako bere funtzioetatik baztertzea.

— Udaleko pertsonal guztia saritu eta zigortu, funtzionarioak zerbitzutik bereiztea edo lan legepeko langileria kaleratzea izan ezik.

\* Kontratazio-Saila.

— Mota guztietako kontratazio eta kontzesioak, beti ere aurrekontuaren ohiko baliabideen % 10 baino txikiagoa eta %5 baino haundiago direnean, urte anitzekoak barne, lau urteko iraupena baino gehiago ez dutenean.

— Ondasun eta eskubideen erosketa erabakitzea, beti ere Aurrekontuaren ohiko baliabideen %10 baino gutxiago denean eta %5a baino gehiago.

— Udal ondarea saltzea aurrekontuaren ohiko baliabideen %10eko mugarekin.

\* Zigortzeko ahalmena.

— Hondakinen kudeaketari dagozkion ordenantzen arau-hausteengatik zigor-espeditatea erabakitzea.

\* Errekurtsoak

— Tokiko Gobernu Batzarraren erabakien aurkako errekurtsoak ebaztea.

Bigarrena.- Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetze honen xede diren gai horiei buruz hartzen dituen erabakietan berariaz jasoko da inguruabar hori, eta eskuordetu gabeko gaiei buruz organo eskuordetza-emaiak ematen dituen ebazpenen balio bera izango dute.

Hirugarrena.- Eskuordetze honek iraungo du korporazio honen legegaldia irauten duten bitartean, legegaldi hori amaitu aurretik eta eskakizun formalak bete ondoren, eskuordetze hori aldatu edo ezeztatzearen kalterik gabe.

Laugarrena.- Ebazpen honen berri ematea Tokiko Gobernu Batzarrari eta Udalbatzaren Osoko Bilkurari. Era berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da.

Bosgarrena.- Indargabetzea 2019ko ekainaren 27ko 814 zenbakiko Alkate Dekretua.

Seigarrena.- Dekretu hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera indarrean jarriko da, hau da, 2023ko uztailaren 16tik aurrera.”

e) Zinegotzi delegatuen izendapena.

Uztailaren 7ko 1057 zb.ko Dekretuaren bitartez, Alkateak honako erabakia hartu ditu:

Lehenengoa.- Oiartzungo Udalean abian jartzea hiru lan-esparrutan oinarritutako antolakuntza-eredua: Antolaketa eta Kontua Bereziak, Lurralde eta Herritarrak. Lan-esparru bakoitzak barne izango ditu Udalean diharduten eta dagokion esparruarekin lotura duten sailak eta azpisailak, denen arteko koordinaziorako eta plangintzarako aipatutako hiru arloetan bilduz.

Hiru esparru horiek, batetik, Udalaren gaur egungo antolamendu-egitura osatzen duten sail/azpisail guztiei dagozkie eta horien jardura osatzen dute, eta, bestetik, bertan txertatuko dira gobernu taldeak legegintzaldi honetarako aurreikusten dituen aldaketak, guztia jarraian adieraziko den moduan uztartzuz.

Bigarrena.- Ondorengo kide hauei eskuordetzea lehendakaritza eta esleitzea lan-esparru bakoitzeko koordinazio orokorrari dagozkion funtzioak arlo horietako arduradun politiko eta zinegotzi delegatu bilakatuz (gaien titularra Alkatea denean ez da eskuordetzerik izango):

Antolakuntza eta Kontuak: Joana Mendiburu Garaiar.

Lurralde: Agustin Lekuona Irastorza.

Herritarrak: Garazi Urdanpilleta Astibia.

Lurralde eta Herritarrak lan-esparru bakoitzeko zinegotzi delegatua izango da bere arloko koordinatzailea eta arduradun politikoa, baztertu gabe koordinatzaile horiek nahiz, jarraian adieraziko den moduan, eskumenak eskuordetuta izango dituzten gainerako zinegotzietan sail edo azpisail horietan zein gai zehatzetan izan ditzaketen gainerako eskuordetzak.

Hirugarrena.- Lan-esparru bakoitzak barne dituen sailak eta azpisailak onartzea. Halaber, esleitzea eta eskuordetzea koordinazio orokorrari dagozkion funtzioak, sail/azpisail horietako arduradun politiko bilakatuz – betiere dagokion lan-esparruko arduradunaren menpe - jarraian zerrendatzen diren sailetan/azpisiletan eta hemen aipatzen diren zinegotzien alde (gaien titularra Alkatea denean ez da eskuordetzerik izango):

1. Antolakuntza lan-esparrua: Joana Mendiburu Garaiar.

— Administrazio Orokorreko Saila. Ondorengo azpisailak izango ditu:

Idazkaritza Orokorra, Kontratazioa eta Ondarea: Joana Mendiburu Garaiar.

Giza Baliabideak: Joana Mendiburu Garaiar.

Erregistroa eta Informazioa, Herritarren Arreta Zerbitzua: Joana Mendiburu Garaiar.

— Kontuhartzailatza eta Ekonomia Zerbitzuak saila: Oihana Irastorza Gonzalez.

— Informatika saila: Joana Mendiburu Garaiar.

2. Lurralde lan-esparrua: Agustin Lekuona Irastorza.

— Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak saila: Agustin Lekuona Irastorza

— Mendi, Ur eta Ingurumena saila: Jon Albisu Mendiburu.

- Mendi ondarearen kudeaketa azpisaila: Ibintza Iragorri Iriarte.

— Ekonomia soziala eta burujabetza: Ibon Mitxelena Fernandez.

3. Herritarren lan-esparrua: Garazi Urdanpilleta Astibia.

— Hizkuntza normalizaziorako saila: Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi.

— Komunikazio, Gardentasun eta Herritarren Parte-hartzerako saila: Joana Mendiburu Garaiar.

— Berdintasunerako saila: Nora Velez Del Burgo Zalakain.

— Gizarte Zerbitzuetako saila: Olaia Lasa Olaziregi.

— Gazteria eta Kirolak saila:

Gazteria: Ekain Susperregi Iburguren.

Kirolak: Edorta Fenandez Etxepeteleku.

— Kultura eta Ondareako saila: Jexux Olaziregi Bagües.

— Udaltzaingo saila: Joana Mendiburu Garaiar.

Laugarrena.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatzaren Osoko Bilkurari. Era berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da.”

f) Kontratazio-mahaiaren eraketa (Alkatea denean kontratazio organoa).

Uztailaren 7ko 1056 zb.ko Dekretuaren bitartez, Alkateak honako erabakia hartu ditu:

**Lehena.**- Alkatearen eskumenekoak diren espedienteetarako (baita Tokiko Gobernu Batzarrean delegatuta dauden espedienteetan), kontratazio-mahai iraunkorraren osaera ezartzea:

Presidentea:

- Titularra: Agustin Lekuona Irastorza, bigarren alkateordea.
- Ordezkoa: Garazi Urdanpilleta Astibia, lehenengo alkateordea.

1. bokala:

- Titularra: Janire Michelena Lecuona, EAJko zinegotzia.
- Ordezkoa: Rafael Bergaretxe Urdanpilleta, EAJko zinegotzia.

2. bokala:

- Titularra: Xabier de la Mota Vazquez, idazkaria.
- Ordezkoa: Oihane Mallagaray Revilla, giza baliabideetako teknikaria.

3. bokala:

- Titularra: Maria Jesus Otaegi Irureta, kontu-hartzailea.
- Ordezkoa: Elixabete Jauregi Imaz, diruzaina.

4. bokala:

- Titularra: Aroia Altuna Ibaruren, kontratazio-teknikaria.
- Ordezkoa: Oihane Mallagaray Revilla, giza baliabideetako teknikaria.

5. bokala:

- Titularra: Amagoia Marcos Saizar, arkitekto teknikoa.
- Ordezkoa: Jose Sanchez Alviz, arkitekto teknikoa.

Idazkaria:

- Titularra: Aroia Altuna Ibaruren, kontratazio-teknikaria.
- Ordezkoa: Xabier de la Mota Vazquez, idazkaria.

Erabaki hau indarrean abuztuaren 1ean sartuko da.

g) Talde politikoen eraketa.

Ekainaren 29an Alkateak eta Idazkariak izenpetutako ziurtagirien bitartez, EH Bildu Talde Politikoa eta EAJ-PNV Talde Politikoa osatuta gelditu zirela jakinarazi da.

h) Zuzendaritza Batzordea



Ekainaren 27ko 993 zb.ko Dekretuaren bitartez, Alkateak honako erabakia hartu ditu:

“Lehenengoa.- Udal antolaketa-egitura barruan, “Zuzendaritza Batzordea” izeneko kide anitzeko organo osagarria sortzea.

Bigarrena.- Honako kideek osatuko dute aipatu organoa:

- Udaleko alkateak.
- Koordinazio-batzordeetako lehendakariak.
- Zerbitzu Ekonomikoak saileko zinegotziak.
- Gizarte Zerbitzuak saileko zinegotziak.
- Idazkariak eta Kontuhartzaileak.
- Lurraldeko koordinazio-batzordeko teknikari koordinatzaileak.
- Herritarrak koordinazio-batzordeko teknikari koordinatzaileak.
- Komunikazio, Gardentasun eta Herritarren Parte-hartzerako teknikariak.

Hirugarrena.- Hauek izango dira Zuzendaritza Batzordearen funtzioak: Udaleko kudeaketa planaren jarraipena egitea, administrazio-kudeaketa planifikatzea, koordinatzea, aholkatzea, kontsultatzea, proposatzea, informatzea eta ebaluatzea, baina ez du erabakiak hartzeko eskumenik izango ezta beste udal organoek eskuordetuta ere.

Laugarrena.- Onartzea Zuzendaritza Batzordearen honako funtzio espezifiko hauek:

- Udal sail orokorretako gaien ohiko kudeaketa aztertzea.
- Sail desberdinetan komunak diren gaiak koordinatzea.
- Alkatetzari aholkuak ematea berezko bere eskumenak erabiltzean, Gobernu Batzordeari dagokion aholkularitzaren kalterik gabe.
- Kudeaketa-planaren jarraipena egitea.
- Lortu nahi diren helburuen izaera eta maila zehazteari buruz Alkatea informatzea eta proposamenak egitea; halaber, helburuen lorpen-maila kontrolatzeko lanetan laguntzea.
- Alkateak egokitzat joko dituen beste gai orokorretan laguntzea.

Bosgarrena.- Hasiera batean bilerak asteartetan egingo dituzte. Dena-den, noiz egingo diren eta funtzionatzeko beste alderdi batzuk organoak berak finkatuko ditu. Modu osagarrian, administrazio-prozedura erkidea arautzen duen legerian aurreikusitako kide anitzeko organoen funtzionamendu-erregimena aplikatuko da.

Seigarrena.- Osoko Bilkurari Dekretu honen berri ematea hurrengo batzarrean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Idazkariak guzti hau irakurri ondoren, Udalkideak jakinaren gain geratu dira.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:45ean direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea

Idazkaria

Elektronikoki sinatutako agiria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUe617d42c-45c6-4ce9-910c-f74963be9869**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopia osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoa:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023ID370011-Udal Oso Batzarraren Akta/Udal Oso Batzarraren Akta